

HKEE-REN PRENTSA-OHARRA, BILBAO EXHIBITION CENTRE, SA 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 24an Bilbao Exhibition Centre Saren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari buruzkoa.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

Halaber, Sozietateak zuzentasunez bete du 2019an haren ekonomia eta finantza jarduera arautu duen lege arautegia, nahiz hiru zerbitzu eta hornigai bat zuzenean kontratatu direla ikusi den. Bestalde, ezin egiaztatu izan da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete diren lan kontratu mugagabea zuten hiru pertsonaren hautaketa-prozesuan, ez baita agiri bidez jasota utzi ez izangaien zerrendarik ez hautaketa irizpiderik ere.